AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2421

1631/2013 EBAZPENA, urriaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, María Teresa Ruiz de Sola andreak Lezako Ospitaleko kudeaketa zuzendari kargua uzten du, jubilazioagatik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1517/2005 Ebazpenaren bidez, María Teresa Ruiz de Sola andrea Lezako Ospitaleko kudeaketa zuzendari izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Teresa Ruiz de Sola andrea Lezako Ospitaleko kudeaketa zuzendari kargutik kentzea, jubilazioagatik, eta egindako zerbitzuengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko urriaren 6tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Lezako Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.